

2019/04/03

COD: A106

Arkitektura (Hirigintza)

**PRIMER EJERCICIO
SEGUNDA PRUEBA**

*Tiempo máximo: 120 minutos
Preguntas: 120.*

EREDUA:

D

- Ez ireki esan arte.
- Markatu, erantzun orrian, egokitu zaizun eredua.
- Proba bukatzean, hartu orri hauek, erantzun-orriaren kopia horia eta jarraibideen orria.
- Gogoan izan:
 - Asmatuak: 1.00
 - Baliogabeak, bikoitzak edo zuriak: ez da punturik kenduko.
- Ereduren marka jartzen ez baduzu, edo oker jartzen baduzu, proba baliogabetu egingo da.
- Ez da erantzun-orri berririk emango ariketaren azken 5 minutuetan.
- Bukatzen duzunean, altxa eskua, eta antolakuntzako baten batek jasoko dizu orri zuria.
- Ez da azterketarik jasoko, banaka, azken 3 minutuetan. Bukatu baduzu, geratu zure lekuan, isilik, denak batera bildu arte.

Eskerrik asko zure laguntzagatik

- 1.- Lurralde Antolamenduari buruzko Legean aurreikusitako tresnak garatzeko planak dira honako hauek:
 - a) Hiri-antolamenduko plan orokorrak eta plan partzialak.
 - b) Hiri-antolamenduko plan orokorrak eta plan bereziak.
 - c) Hiri-antolamenduko plan orokorrak eta sektorekatze-planak.
 - d) Hiri-antolamenduko plan orokorrak, sektorekatze-planak eta bateragarritze-planak.

- 2.- Zeini dagokio Lurralde Antolamendurako Gidalerroak egitea eta onartzea?
 - a) Eusko Jaurlaritzari.
 - b) Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei batera.
 - c) Eusko Jaurlaritzari, foru-aldundiei eta EUDELi (udalak ordezkaturaz) batera.
 - d) Estatuari, Eusko Jaurlaritzari eta foru-aldundiei batera.

- 3.- Zehaztaper hauetako bat EZ dago jasota Lurralde Plan Partzialetan. Zein da?
 - a) Arlo funtzionaleko ekipamenduen definizioa.
 - b) Hiri berroneratzeko esparruak, degradazioa eragozteko.
 - c) Lurralde Antolamendurako Gidalerroak arlo funtzionalean garatzeko arauak.
 - d) Hiri-lurzoru finkatugabe eta urbanizagarriaren zenbaketa.

- 4.- Zeini dagokio Lurralde Plan Partzialak egitea eta onartzea?
 - a) Eusko Jaurlaritzari beti.
 - b) Eusko Jaurlaritzari edo foru-aldundi bati, bietako edozeini.
 - c) Foru-aldundiari, lurralde historiko bati baino gehiagori eragiten badio.
 - d) Eusko Jaurlaritzari, lurralde historiko bati baino gehiagori eragiten badio.

- 5.- Lurralde Antolamendurako Gidalerroetan zehaztutakoa noiz aplikatuko da plangintza-tresnetan?
 - a) Zehaztaper zuzenak direnean, 4/90 Legearen 8.2 artikulua araberan.
 - b) Kasu guztietan, 4/90 Legearen 8.2 artikulua araberan.
 - c) Lurralde Plan Partzial bat finkatzeko denean bakarrik, 4/90 Legearen 8.2 artikulua araberan.
 - d) Lurralde Plan Sektorialen kontrakoak ez direnean.

- 6.- Lurralde Plan Sektorialak bat ez badatoz Lurralde Antolamendurako Gidalerroekin eta Lurralde Plan Partzialekin, zein izango da ondorioa?
 - a) Berdin interpretatuko dira.
 - b) Bat ere ez.
 - c) Bat ez datozen Lurralde Plan Sektorialeko zatia edo zatiak deuseztagarriak izango dira.
 - d) Bat ez datozen Lurralde Plan Sektorialeko zatia edo zatiak deuseztatu ahal izango dira.

- 7.- Edozein udalerriren hirigintza-plangintza berri bakoitzean bermatuta egongo da bizitegi-ahalmenaren gutxieneko portzentajea. Zein izango da portzentaje hori?
 - a) Hasierako etxebizitza-parkearen % 10, hiri-lurzoru finkatugabeak zenbatu gabe.
 - b) Hasierako etxebizitza-parkearen % 10.
 - c) Hasierako etxebizitza-parkearen % 8, hiri-lurzoru finkatugabeak zenbatu gabe.
 - d) Hasierako etxebizitza-parkearen % 8.

- 8.- Gasteiz sartuta dagoen Araba Erdialdeko eremu funtzionalari dagozkion Lurralde Antolamendurako Gidalerroen arabera, zein da 2014-2022 aldirako definituta dagoen gutxieneko bizitegi-ahalmena?
 - a) 5.000 etxebizitza baino gehiago.
 - b) 10.000 etxebizitza baino gehiago.
 - c) 15.000 etxebizitza baino gehiago.
 - d) 20.000 etxebizitza baino gehiago.

- 9.- EAEko Ibaiertzak eta Errekaertzak Antolatze LPSren araudiaren arabera, jarraian zehaztutako erabileretatik bat BAI ezarri ahal da lehentasunezko fluxu-eremuan. Zein da?
 - a) Negutegiak eta nekazaritza-erakinak.
 - b) Era guztietako betelanak.
 - c) Bolumena handitzea dakartzaten eraikinen konpontze-obra.
 - d) Ibilgailuen aparkalekuak gainazalean.

- 10.- EAEko Ibaiak eta Errekak Antolatzeko LPSren arabera, zer nibel dauka Zadorra ibaiak Gamarra Nagusiko kontzejutik aurrera, Gasteizetik pasatzen denean?
- VI. maila.
 - V. maila.
 - II. maila.
 - I. maila
- 11.- Trenbide-sarearen LPSean zehaztutakoak zer eragin dauka hiri-plangintzako tresnei dagokienez?
- Loteslea da garapen berrietarako argitaratu eta urte beteko epean, baina aurretik dauden garapenentarako ordezkatzan badira izango dira bakarrik lotesleak.
 - Loteslea da garapen berrietarako eta aurretik dauden garapenentarako argitaratu eta urte beteko epean.
 - Loteslea da garapen berrietarako argitaratu eta urte beteko epean, baina aurretik dauden garapenentarako desjabetzen badira izango dira bakarrik lotesleak.
 - Ez dauka eraginik, erabaki autonomoa da.
- 12.- Trenbide-sarearen LPSren arabera, non kokatuko da Gasteizko trenbide-sarearen lurpeko geltoki berria?
- Geltoki plaza txoaren inguruan, Unibertsitateen pasealekuarekiko paraleloan.
 - Ariznabarrako parkearen inguruan, Pedro Asua kalearen parean.
 - Judimendiko parkearen inguruan, Judimendiko gizarte-etxearen parean.
 - Latinoamerika plazaren inguruan, Arriagako parkearen parean.
- 13.- EAEko Ekonomia-jarduerentarako eta Merkataritza-ekipamenduentarako Lurzoru Publikoa Sortzeko LPSren arabera, nola arautuko dira hirigintza arloan hiriguneen erdialdean kokatuta dauden eraikuntza itxiko azalera handiko merkataritza-ekipamenduak?
- Udal-plangintzaren arabera.
 - Udal-plangintzaren eta Eusko Jaurlaritzaren merkataritza arloko nahitaezko txosten loteslearen arabera.
 - Udal-plangintzaren eta EAEko LABren nahitaezko txosten loteslearen arabera.
 - Udal-plangintzaren eta foru-aldundiaren merkataritza arloko nahitaezko txosten loteslearen arabera, baldin eta udalerrriak plangintza onartzeko gaitasunik ez badauka.
- 14.- EAEko Ekonomia-jarduerentarako eta Merkataritza-ekipamenduentarako Lurzoru Publikoa Sortzeko LPSren arabera, udalerrien sailkapenean, zein kategoriatan dago Gasteiz?
- A kategorian
 - B kategorian
 - C kategorian
 - D kategorian edo kategoriarik gabe.
- 15.- Zeintzuk dira ingurumen-ebaluazio sinplifikatua bete behar duten planak edo tresnak?
- Gerora ingurumen-inpaktuaren ebaluazioa egitera behartuta dauden proiektuak garatzen dituzten guztiak.
 - Natura 2000 Sareko guneetan eragina duten guztiak.
 - Planaren edo tresnaren sustatzaileak eskatutako guztiak.
 - Izapidetze arrunta ez daukaten guztiak.
- 16.- Izapidetze arrunteko planen eta programen ingurumen-ebaluazioa adierazpen batekin amaitzen da. Nola du izena?
- Ingurumen-adierazpen estrategikoa.
 - Ingurumen-irismen estrategikoari buruzko adierazpena.
 - Ingurumen-eraginari buruzko adierazpena.
 - Ingurumen-eraginaren ebaluazioari buruzko adierazpena.

17.- Euskal Autonomia Erkidegoko hots-kutsadurari buruzko 213/2012 Dekretuaren arabera, jarduera hauetatik adierazi zein EZ den berritzaile joko:

- a) Dekretu hau indarrean jarri ondoren aginduzko lizentzia, baimena, aurretiazko jakinarazpena edo erantzukizunpeko adierazpena eskatzen dutenak.
- b) Bizitegi-erabilera hiri-lurzoruan egindako jarduerak, lokal edo egoitzaren bat zaharberitu edo aldatzeko xedea dutenean, baldin eta egoitzaren paramentu bat edo gehiagori eragiten badie, eta horrek inguruko egoitzetan zarata sortzeko gaitasuna areagotu badezake.
- c) Bizitegi-erabilera hiri-lurzoruan egindako jarduerak, lokal edo egoitzaren bat zaharberitu edo aldatzeko xedea dutenean, baldin eta egoitzaren paramentu bat edo gehiagori eragiten badie, eta horrek inguruko egoitzetan bibrazioa sortzeko gaitasuna areagotu badezake.
- d) Dekretu hau indarrean jartzean abian diren jarduerak, nahiz eta zarata-foku berriak eratzen dituzten aldaketak gauzatu.

18.- Ondorengo definizioetatik, zein dator bat Zonako Plan Akustikoaren definizioarekin?

- a) Lurraldeko administrazio publiko batek babes akustiko bereziko eremu batean gauzatu beharreko jardueren multzoa, hots-kutsadura murriztu eta eremu horretan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak bete daitezten.
- b) Administrazio batek bere eskumenen esparruan hots-kutsadura orokorki kudeatzeko hartzen duen estrategia eta ekintza zuzentzaile, aurre-hartzaile eta zaintzaileen multzoa. Ekintza-plan hori lurralde baten ebaluazio orokorrera atxikita egon daiteke edo, bestela, eremu bateko zarata-iturri jakin batek dakarren eragin orokorrari aurre egin diezaiolake.
- c) Lehentasunezko ekintza-eremu batean igorpen akustikoen foku batek edo gehiagok sortutako hots-kutsadura murrizte aldera gauzatu beharreko jardueren multzoa; jarduera horiek eremu horren pertsona edo erakunde titularrak zehaztuko ditu, eremuko area akustikoetan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak bete daitezten.
- d) Xede nagusia eremu baten kalitate akustikoa zaintzea denean hartu beharreko jardueren multzoa.

19.- Ondorengo definizioetatik, zein dator bat Jarraipen-planaren definizioarekin?

- a) Lurraldeko administrazio publiko batek babes akustiko bereziko eremu batean gauzatu beharreko jardueren multzoa, hots-kutsadura murriztu eta eremu horretan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak bete daitezten.
- b) Administrazio batek bere eskumenen esparruan hots-kutsadura orokorki kudeatzeko hartzen duen estrategia eta ekintza zuzentzaile, aurre-hartzaile eta zaintzaileen multzoa. Ekintza-plan hori lurralde baten ebaluazio orokorrera atxikita egon daiteke edo, bestela, eremu bateko zarata-iturri jakin batek dakarren eragin orokorrari aurre egin diezaiolake.
- c) Ekintza Planetan edota Zonako Planetan ezarritako helburuen betetze-maila ebaluatzeko asmoz administrazio eskumendunak zehaztutako jardueren multzoa.
- d) Lehentasunezko ekintza-eremu batean igorpen akustikoen foku batek edo gehiagok sortutako hots-kutsadura murrizte aldera gauzatu beharreko jardueren multzoa; jarduera horiek eremu horren pertsona edo erakunde titularrak zehaztuko ditu, eremuko area akustikoetan aplikagarriak diren kalitate akustikoko helburuak bete daitezten.

20.- Ondorengo definizioetatik, zein dator bat Babes Akustiko Bereziaren Eremuaren definizioarekin?

- a) Zarata-foku batek edo gehiagok sortutako hots-mailaren ondorioz kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez diren eremu akustikoak. Azken horien pertsona edo erakunde titularrak dagokion lehentasunezko ekintza-plana zehaztu beharko du.
- b) Kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez diren area akustikoak. Administrazioak halakotzat jo beharko ditu eta dagokien eremuko plan akustikoa zehaztu beharko zaie.
- c) Erkidego- edo foru-eskumeneko garraio-bide-azpiegitura bati lotutako lurralde-zerrenda, azpiegitura horren inpaktu akustikoaren gehienezko maila irudikatzen duena eta azpiegituraren funtzionamendua lurzoruaren erabilerekin bateratzen laguntzeko balio duena.
- d) Eskumeneko administrazioak babes akustiko bereziko gisa sailkatutako esparru bati dagozkion eremu akustikoak; esparru horietan dagokien eremuko planean ezarritakoaren arabera neurri zuzentzaileek ezin izan dute eragotzi kalitate akustikoko helburuak ez betetzea eta, horrenbestez, epe luzerako neurri osagarriak zehaztu behar dira, barneko espazioei lotutako kalitate akustikoko helburuak betetzea lortzeko.

- 21.- Ondorengo definizioetatik, zein dator bat Egoera Akustiko Bereziko Eremuaren definizioarekin?
- Zarata-foku batek edo gehiagok sortutako hots-mailaren ondorioz kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez diren eremu akustikoak. Azken horien pertsona edo erakunde titularrak dagokion lehentasunezko ekintza-plana zehaztu beharko du
 - Kalitate akustikoko helburu aplikagarriak betetzen ez diren area akustikoak. Administrazioak halakotzat jo beharko ditu eta dagokien eremuko plan akustikoa zehaztu beharko zaie.
 - Erkidego- edo foru-eskumeneko garraiobide-azpiegitura bati lotutako lurralde-zerrenda, azpiegitura horren inpaktu akustikoaren gehienezko maila irudikatzen duena eta azpiegituraren funtzionamendua lurzoruaren erabilerekin bateratzen laguntzeko balio duena.
 - Eremu akustikoak non dagokien eremuko planean ezarritakoaren arabera neurri zuzentzaileek ezin izan duten eragotzi kalitate akustikoko helburuak ez betetzea eta, horrenbestez, epe luzerako neurri osagarriak zehaztu behar diren barneko espazioei lotutako kalitate akustikoko helburuak betetzea lortzeko.
- 22.- 213/2012 Dekretuaren arabera, Ekintza-planek bildu beharreko gutxieneko alderdien artean EZ da egongo hauetako bat. Zein da?
- Zarata-maparen emaitzen laburpena.
 - Zonako Plana.
 - Kalitate-helburuak gainditzeko eremuen zerrenda eta haiei dagozkien lehentasunak, baldin eta eremuok Babes Akustiko Bereziko Eremu edo Lehentasunezko Ekintza Eremu gisa aitortzea aurreikusita badago.
 - Erreferentziak hots-kalitatearen helburuetan zehaztutakoa baino hots-maila handiagoak jasaten dituzten pertsonen kopurua zenbat murriztuko den jotzea.
- 23.- Babes publikoko araubide bati atxikitako etxebizitzetarako, zein da estandarra urbanizazio bidez finkatu gabeko hiri-lurzoruan?
- % 55, gutxienez, gizarte-babeseko etxebizitzetarako, eta gainerakoa, gutxienez % 75era iritsi arte, tasatutako etxebizitzetarako.
 - % 55, gutxienez, babes ofizialeko etxebizitzetarako, eta gainerakoa, gutxienez % 75era iritsi arte, tasatutako etxebizitzetarako.
 - % 20, gutxienez, gizarte-babeseko etxebizitzetarako, eta gainerakoa, gutxienez % 40ra iritsi arte, tasatutako etxebizitzetarako.
 - % 20, gutxienez, babes ofizialeko etxebizitzetarako, eta gainerakoa, gutxienez % 40ra iritsi arte, tasatutako etxebizitzetarako.
- 24.- Nagusiki bizitegitarako diren sektoretako lurzoru urbanizagarrian, zein da tokiko sistemen sareko ekipamendu pribatuetarako estandarra?
- Metro karratu bat sabai-azalera, 25 metro karratuko lurzoru azalerako, zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.
 - Metro karratu bat sabai-azalera, 25 metro karratuko lurzoru azalerako, bizitegirako azalerak kontuan hartuta.
 - Metro karratu bat sabai-azalera, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko sabai-azalerako, zuzkidura publikoetarako ez diren azalerak kontuan hartuta.
 - Metro karratu bat sabai-azalera, lur-arrasetik gorako 25 metro karratuko lurzoru azalerako, bizitegirako azalerak kontuan hartuta.
- 25.- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretua EZ da aplikagarria balioespen hauetarako:
- Desjabetze balioespenetarako.
 - Ondare-erantzukizuneko espedienteetako balioespenetarako.
 - Merkatuko balioespenetarako transakzioetan.
 - Jabeari nahitaezko salmenta edo ordezpenean ordaindu beharreko prezioa finkatzeko balioespenetan.

26.- Lurzoruaren eta Hiri Birgaitzearen Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera, nola egiten da administrazio-emakiden eta higiezinaren gaineko eskubide errealen balioespena?

- Konparazio-metodoa erabilia.
- Desjabetzeari buruzko legeriaren arabera egingo da; eta subsidiarioki, aplikatzekoak diren zuzenbide administratibo, zibil edo fiskaleko arauen arabera.
- Zerga-legeriaren arabera.
- Haien ordezpen-balioaren arabera.

27.- Zer metodoren arabera egiten da landa-lurzoruen balioespena?

- Errenta errealak kapitalizatzearen bidezko metodoaren arabera.
- Errenta potentzialak kapitalizatzearen bidezko metodoaren arabera.
- Errenta erreala edo potentziala —bietan handiena— kapitalizatzearen bidezko metodoaren arabera.
- Hondar metodoaren arabera, urbanizazio-jarduketa baten mende badago.

28.- Zer metodoren arabera egiten da lurzoru urbanizatuko eraldaketa-jarduketetan dauden antolamenduz kanpoko eraikinen balioespena?

- Berrezartze-metodoaren arabera.
- Koste-metodoaren arabera.
- Kapitalizazio-metodoaren arabera.
- Konparazio-metodoaren arabera, baldin eta hondar-metodoak balio handiagoa ematen ez badu.

29.- Urbanizazio berriko jarduketetan parte hartzeko ahalmenari dagokion kalte-ordaina EZINGO DA eskatu kasu honetan:

- Lurzoruak landa-lurzoru izaera badu.
- Lurzoruak lurzoru urbanizatu izaera badu.
- Urbanizatzeko Jarduketa Programa onartua badu antolamenduak.
- Jarduketak egiteko epeak ez badira igaro.

30.- Jarduketaren sustatzaileari jarduketaren ondorioz sortzen diren partzelak esleituz ordaintzen ez zaionean, nola egingo da balioespena?

- Eskubideen balioa, arriskurik gabeko tasa eta arrisku-prima kenduta.
- Eraikigarritasun balioa, arriskurik gabeko tasa eta arrisku-primaren arabera maioratuta.
- Landa-balioa, arriskurik gabeko tasa eta arrisku-primaren arabera maioratuta.
- Egindako gastuen balioa, arriskurik gabeko tasa eta arrisku-primaren arabera maioratuta.

31.- Plangintzaren egiturazko antolamendua osatzen duten zehaztapenen artean EZ dago hauetako bat. Zein da?

- Hiri-bilakaerarako eta lurzoruaren okupaziorako estrategia.
- Epeak finkatzea garapeneko plangintza egin eta onartzeko eta lurzoruaren programazioa egiteko.
- Eraikigarritasun fisikoa finkatzea garapen-eremu guztietan.
- Zehaztapenak finkatzea babes ofizialeko araubide bati atxikitako etxebizitzaren gutxieneko estandarrak eta kopuruak betetzen direla bermatzeko.

32.- Hiri-lurzoruko eta urbanizagarriko plangintzaren egiturazko antolamendua osatzen duten zehaztapenen artean dago hauetako bat. Zein da?

- Hiri-lurzoru finkatua eta finkatu gabea identifikatzea.
- Lurzoru urbanizagarri sektorekatua eta sektorekatu gabea identifikatzea.
- Lurzoru urbanizaezin arrunta eta babes berezikoa identifikatzea.
- Tokiko sistemak zehatz identifikatzea eta definitzea.

33.- Zer da sistema orokorren sarea?

- a) Zuzkidura hauek osatzen dute sistema orokorren sarea: plangintza orokorrak ezarritako antolamendukoak direnak, eta bereziki, espazio libreak, ekipamenduko kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak, plangintza-eremu bat baino gehiago hartzen badute funtzionaltasunez eta zerbitzuz.
- b) Zuzkidura hauek osatzen dute sistema orokorren sarea: plangintza orokorrak ezarritako antolamendukoak direnak, eta bereziki, espazio libreak, ekipamenduko kolektibo publikoak, ekipamendu kolektibo pribatuak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak, plangintza-eremu bakarra hartzen badute funtzionaltasunez eta zerbitzuz.
- c) Zuzkidura hauek osatzen dute sistema orokorren sarea: plangintza orokorrak ezarritako antolamendukoak direnak, eta bereziki, espazio libreak, ekipamenduko kolektibo publikoak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak soilik, plangintza-eremu bat baino gehiago hartzen badute funtzionaltasunez eta zerbitzuz.
- d) Zuzkidura hauek osatzen dute sistema orokorren sarea: plangintza orokorrak ezarritako antolamendukoak direnak, eta bereziki, espazio libreak, ekipamenduko kolektibo publikoak eta komunikazio-azpiegiturak eta -sareak soilik, plangintza-eremu bakarra hartzen badute funtzionaltasunez eta zerbitzuz.

34.- Plangintzaren antolamendu xehatuak ezarri beharreko zehaztapenen artean EZ dago hauetako bat. Zein da?

- a) Tokiko sistemak zehatz definitzea.
- b) Plangintza-eremuei lotutako edo atxikitako sistema orokorrak.
- c) Lurzorua hiri-lurzoru finkatu gisa eta hiri-lurzoru finkatugabe gisa kategorizatzea.
- d) Ponderazio-koefizienteak jartzea.

35.- Hiria Antolatzeko Plan Orokor batek, aukeran, honako hau finka dezake:

- a) Plan orokorrean hiri-lurzoru finkatuaren eta finkatu gabearen kategorian sartutako hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua.
- b) Lurzoru urbanizagarri sektorekatuaren eta plan orokorrean hiri-lurzoru finkatuaren kategorian sartu gabeko hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua. Antolamendu hori, nolahi ere, antolamendu xehatuko plangintzan arautzeko utz daiteke.
- c) Lurzoru urbanizagarri sektorekatuaren eta plan orokorrean hiri-lurzoruaren kategorian definitu gabeko hiri-lurzoruaren antolamendu xehatua. Antolamendu hori, nolahi ere, antolamendu xehatuko plangintzan arautzeko utz daiteke.
- d) Plan orokorrean lurzoru urbanizagarri sektorekatuaren eta sektorekatu gabearen kategorian sartutako lurzoru urbanizagarriaren antolamendu xehatua.

36.- Nolako izango da plangintzako sektore bat?

- a) Lurzoru urbanizagarri sektorekatua baino ezin du eduki, etenak eduki ditzake eta egikaritze-unitate bakarra eduki dezake.
- b) Lurzoru urbanizagarri sektorea baino ezin du eduki, ezin du etenik eduki eta egikaritze-unitate bakarra eduki dezake.
- c) Lurzoru urbanizagarri sektorekatua baino ezin du eduki, etenak eduki ditzake eta egikaritze-unitate bat edo gehiago eduki dezake.
- d) Lurzoru urbanizagarri sektorekatua baino ezin du eduki, ezin du etenik eduki eta egikaritze-unitate bat edo gehiago eduki dezake.

37.- Zeintzuk dira Plan Partzialetan jaso behar diren ekonomia-azterketak?

- a) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa.
- b) Hiri-eremuaren gaineko jarduketaren bideragarritasunaren ekonomikoaren azterketa.
- c) Ekonomiaren eta finantzen aldetik duen bideragarritasunaren azterketa eta jasagarritasun ekonomikoari buruzko txostena.
- d) Aurrekoetako bat ere ez.

38.- Zein da Hiri-antolamenduko Plan Bereziaren xedea?

- a) Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoru aretan antolamendu xehatua ezarrita egiten du.
- b) Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen lurzoru urbanizagarriko sektoreen antolamendu xehatua ezarrita egiten du.
- c) Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoru finkatuko aretan antolamendu xehatua ezarrita egiten du.
- d) Plan orokorraren egiturazko antolamendua garatzea, eta hori, hain zuzen, plan orokorrak egiturazko antolamendua atzeratzea baimentzen duen hiri-lurzoruko egikaritze-unitateetan antolamendu xehatua ezarrita egiten du.

39.- Hiri-berrikuntzako plan berezien helburuen artean EZ da egongo jarduketa zehatzak garatzea, baldin eta aurreko antolamenduaren funtsezko egitura gordeta, ...

- a) hiri-lurzorua deskongestionatzera, mugigarritasun-arazoak edo estetika-arazoak konpontzera bideratuko badira.
- b) zuzkidura publikoak eta ekipamendu kolektibo pribatuak sortuko badituzte.
- c) hirigintza-eraikigarritasuna aldatuko badute.
- d) auzoak saneatu, hiria berroneratu eta birgaitu eta barne-erreformak ekarriko badituzte.

40.- Hirigintza-antolamendua egikaritzeko beharrezkoak diren alde aurreko betekizunak:

- a) Plangintza edukitzea antolamendu xehatuarekin, urbanizatzeko jarduketa-programa, urbanizazio-proiektua, birpartzelatze-proiektua eta eraikitze-programa, jarduketa isolatuen kasuan.
- b) Plangintza edukitzea egiturazko antolamenduarekin, urbanizatzeko jarduketa-programa, urbanizazio-proiektua eta eraikitze-programa, jarduketa isolatuen kasuan.
- c) Plangintza edukitzea antolamendu xehatuarekin eta urbanizatzeko jarduketa-programa.
- d) Urbanizatzeko jarduketa-programa edukitzea, urbanizazio-proiektua eta eraikitze-programa, jarduketa isolatuen kasuan.

41.- Zein da zuzkidura-jarduketaren helburua?

- a) Zuzkidura-karga kentzea, berdin diolarik eskuratu beharreko zuzkidurak adierazita egon zein egon ez.
- b) Plangintzak hirigintza-eraikigarritasun haztatuaren kontura adierazitako zuzkidurak eskuratzea.
- c) Plangintzak adierazitako zuzkidura publikoak instalatzeko beharrezkoak diren lurzoruak desjabetze bidez eskuratzea.
- d) Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.

42.- Zuzkidura publikoak egikaritzeko jarduketa sistema zein izango da?

- a) Hitzarmena.
- b) Kooperazioa.
- c) Eragile urbanizatzailea.
- d) Desjabetzea.

43.- Antolamendu-tresnetan urbanizazio-jarduketak badaude jasota, memoria, planoak, etapa-plana, ordenantzak eta azterlan ekonomiko eta finantzarioaz gain, nahitaezkoak dira beste dokumentu, txosten edo azterlan batzuk ere. Zeintzuk?

- a) Ingurumen-ebaluazio estrategikoa.
- b) Ur-nahikotasunari eta eskuragarritasunari buruzko txostena.
- c) Jasangarritasun ekonomikoari buruzko txostena.
- d) Aurreko guztiak.

44.- Birpartzelatze-proiektu batek zertarako EZ du balio?

- a) Finkak erregularizatzeko eta egokitzeko.
- b) Esparruen artean aprobetxamendua transferitzeko.
- c) Planean ezarri den ondarean sartzeko moduko aprobetxamendua partzelen gainean kokatzeko.
- d) Planean ezarri den Udalaren aprobetxamendua partzelen gainean lokalizatzeko.

- 45.- Gasteizko HAPOaren arabera, azalera eraikigarriaren batura zenbatzeko irizpide hauetako bat EZ da zuzena. Zein?
- 1,5 metrotik gorako altuera libre duen estalpeko azalera eraikia.
 - Estali gabeko terrazak, baina hiru aldetatik gutxienez zedarrituak.
 - Hegalkinak, irtenak eta begiratoki itxiak.
 - Behin-behinekoak ez diren eraikin sekundarioak.
- 46.- Gasteizko HAPOren arabera, zein da sotoko solairu baten definizioa?
- Beheko forjatuaren gaineko aurpegia lurzoruaren sestraren azpitik 1 m baino gehiagora duten solairu guztiak izango dira sotoko solairuak.
 - Beheko forjatuaren gaineko aurpegia lurzoruaren sestraren azpitik 0,80 m baino gehiagora duten solairu guztiak izango dira sotoko solairuak.
 - Beheko forjatuaren gaineko aurpegia lurzoruaren sestraren azpitik 0,50 m baino gehiagora duten solairu guztiak izango dira sotoko solairuak.
 - Beheko forjatuaren gaineko aurpegia lurzoruaren sestraren azpitik duten solairu guztiak izango dira sotoko solairuak.
- 47.- Gasteizko HAPOren arabera, zein da gutxieneko etxebizitza-azalera?
- 40 m² erabilgarri.
 - 42 m² erabilgarri.
 - 45 m² erabilgarri.
 - 50 m² erabilgarri.
- 48.- Gasteizko HAPOren arabera, ibilgailuak noizbehinka edo aldizka aparkatzeko diren erabilera publiko, kolektibo edo pribatuko guneetan aparkalekuko plaza batek eduki behar dituen gutxieneko dimentsioak, zeintzuk dira?
- 2,40 m x 4,75 m inolako elementurik gabe.
 - 2,40 m x 5,00 m inolako elementurik gabe.
 - 2,25 m x 4,75 m inolako elementurik gabe.
 - 2,25 m x 5,00 m inolako elementurik gabe.
- 49.- Gasteizko HAPOren arabera, Babes Integralari buruzko Ordenantza bete behar duten eraikinen zaharberritze tipikoa zein da?
- Zaharberritze arrunta.
 - Zaharberritze kalifikatua.
 - Zaharberritze zientifikoa.
 - Zaharberritze berezia.
- 50.- Gasteizko HAPOren arabera, nolako eraikinei aplikatuko zaie Birgaitze eta Berritze Ordenantza?
- Katalogatuta bai baina kultur babesik ez daukatenei, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat etorrita.
 - Kultur babesik ez daukatenei, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat etorrita.
 - Inbentarioan sartzeko proposatuta daudenei bakarrik, Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legearekin bat etorrita.
 - Eraikuntza-balio garrantzitsurik ez baina ingurumenaren edo tipologiaren aldetik nolabaiteko interesa duten eraikinak.
- 51.- Eraikuntzaren Antolamenduari buruzko Legearen arabera, ondorengo kontzeptuetako bat EZ da sartu behar obra hartzearen aktan. Zein da?
- Obra-zuzendariaren sinadura.
 - Sustatzailearen sinadura.
 - Obra-bukaerako ziurtagiriaren data.
 - Obrako lanak egitearen azken kostua.

- 52.- Adierazi zeintzuk diren eraikingintza-prozesuan parte hartzen duten eragileen erantzukizun zibileko epeak.
- 10 urtekoa, kontzeptu guztietarako.
 - 10 urtekoa egiturari eta zimenduei dagokienez, 3 urtekoa eraikuntza-elementu eta instalazioei dagokienez eta urte betekoa akaberei dagokienez.
 - 10 urtekoa egiturari eta zimenduei dagokienez, 3 urtekoa inguratzaileari dagokienez eta urte betekoa instalazio eta akaberei dagokienez.
 - 10 urtekoa egiturari eta zimenduei dagokienez, 5 urtekoa bizigarritasunarekin lotuta inguratzaileari dagokienez eta urte betekoa instalazio eta akaberei dagokienez.
- 53.- Aukeratu jarduera sailkatuaren lizentzia behar duten jarduerak.
- Hondakin-urak arazteko instalazioak.
 - Eraldaketa-zentroak.
 - Energia hartzeko instalazioak, 50 eta 100 Kw artekoak.
 - Ibilgailuak zaintzeko lekuak.
- 54.- Aukeratu aurretiko komunikazio-araubidearen bidezko baimena behar duten jarduerak.
- Hiltegiak, haragia zatitu gabe.
 - 300 pertsonatik gorako edukiera duten antzokiak.
 - Gasolindegia.
 - Errauste-laberik gabeko hilerri eta tanatorioak.
- 55.- Esku-hartze administratiboaren erregimenaren menpe dauden jarduera edo instalazioak biltzen dituen instalazio bati, zer eskatuko zaio jardueraren arloan?
- Sailkatutako jardueraren lizentzia.
 - Eskatu ahal den gutxienekoa, aurretiko komunikazioa.
 - Ingurumen-baimen integratua.
 - Instalazio zati bakoitzari, dagokiona.
- 56.- Sailkatutako jardueren lizentzien kasuan, nolako izaera du autonomia-erkidegoak edo foru-organoak emandako neurri zuzentzaileen txostenak?
- Nahitaezkoa, baina ez loteslea
 - Ez-nahitaezkoa eta loteslea.
 - Ez-nahitaezkoa ezta loteslea ere.
 - Nahitaezkoa eta loteslea.
- 57.- Jarraian zehaztutako ekintzetako batek EZ du zertan izan behar tokiko administrazioen ekintza hiri-hondakin solidoen arloan.
- Lurzoru ez urbanizagarrian hiri-hondakinak kudeatzeko eta baliarazteko plantak ezartzea baimentzea.
 - Material birziklatuak dituzten produktuak lortzea lehenetsiko duen erosketa publikoen politika ezartzea.
 - Ekiteko mekanismoak ezarri eta ontziak zein ontzi-hondakinak egoki kudeatzeko behar diren azpiegiturak sustatzea.
 - Materialak berreskuratzeko eta balioztatzeko azpiegiturak ezartzea bultzatzea.
- 58.- Kutsatutako lurzoruen arloan Udalei dagozkie eskumen hauek:
- Udaleko lurzoru kutsatuen inbentarioak egitea.
 - Hirigintzako planetan jasotzea, kutsatutako lurzoruei buruzko politikaren oinarrian hirigintzako kudeaketan sartzea eta aplikatzea.
 - Bere erabilpen desberdinen arabera, lurzoruaren osagai desberdinen balio maximo onargarriak ezartzea.
 - Kutsatutako lurzoruentzat prebentzio, defentsa eta berreskurapenerako neurriak definitzea eta ezartzea.
- 59.- Agintaritzak publiko batek okupatutako eraikinek nahitaez eduki eta erakutsi behar dute efizientzia energetikoaren ziurtagiria eta haren etiketa, baldin eta honako azalera hau baino gehiago badute:
- Eraikitako 500 m².
 - Eraikitako 250 m².
 - 500 m² erabilgarri.
 - 250 m² erabilgarri.

- 60.- Adierazi zein den eraikin baten efizientzia energetikoaren ziurtagiriaren indarraldia:
- 10 urte, oro har, eta 5 urte agintaritze publiko batek okupatutako eraikinen kasuan.
 - 10 urte, oro har.
 - 10 urte, oro har, eta 5 urte gurtzarako eraikinen edo babestuta dauden eraikinen kasuan.
 - 10 urte, oro har, eta 5 urte etxebizitzaz bestelako erabileretarako.
- 61.- Eginkizun hauetako bat EZ dagokio segurtasun- eta osasun-koordinatzaileari obra egin bitartean. Zein da?
- Enpresa-jardueren koordinazioa antolatzea.
 - Segurtasunerako eta osasunerako lanen eta partiden kostuak gainbegiratzea eta ziurtatzea.
 - Obrara baimendutako langileak baino ez direla sartuko ziurtatzeko, beharrezkoak diren neurriak hartzea.
 - Prebentzio-ekintzen printzipioak koherentziaz eta arduraz aplikatu daitezkeen, jarduerak koordinatzea.
- 62.- Betebehar hauetako bat EZ dagokie obra bateko langile autonomoei. Zein da?
- Prebentzio-ekintzen printzipioak aplikatzea.
 - Beharrezkoak diren NBEak erabiltzea.
 - Planean zehaztutako segurtasun eta osasuneko xedapenak betetzea.
 - Prebentzio-baliabideak egindako Osasun- eta segurtasun-plana izenpetzea.
- 63.- Oinezkoentzako ibilbideetan, zeintzuk dira luzetarako eta zeharkako aldapak, gehienez ere?
- Luzetarakoa \leq % 8 eta zeharkakoa \leq % 1.
 - Luzetarakoa \leq % 6 eta zeharkakoa \leq % 2.
 - Luzetarakoa \leq % 6 eta, salbuespenez \leq % 10; eta zeharkakoa \leq % 2.
 - Luzetarakoa \leq % 6 eta zeharkakoa \leq % 1.
- 64.- Hiriguneetako eskailerek zenbateko mailagaina izango dute gutxienez?
- 32 cm.
 - 30 cm.
 - 28 cm.
 - 35 cm.
- 65.- Eraikin berri bateko igogailuaren kabinaren gutxienezko dimentsioa zein da?
- 1,50 metro x 1,00 metro.
 - 1,40 metro x 1,00 metro.
 - 1,40 metro x 1,10 metro.
 - 1,50 metro x 1,10 metro.
- 66.- Eraikin berri bateko eskaileraren gutxienezko zabalera zein da?
- 1 metro.
 - 1,1 metro.
 - 0,9 metro.
 - 0,8 metro.
- 67.- Etxebizitza-eraikinak eraberritzeko obretan zer eskatuko da?
- III. eranskinean zehaztutakoa, salbu eta Irigarritasunaren Euskal Kontseiluak salbuespen-baimena ematen badu.
 - III. eranskinean zehaztutakoa, beti.
 - III. eranskinean zehaztutakoa, salbu eta erabilgarritasun-irizpideak aplikatzen badira.
 - Irigarritasunaren Euskal Kontseiluak ezarritakoa.
- 68.- Eraberritzeko obren kasuan eta salbuespenez, zein da eraikin bateko barruko arrapalek izan dezaketen gehieneko aldapa?
- % 10, eta % 12raino igo ahal izango da aldapa 3 m-tik beherako tarteetan.
 - % 8, eta % 12raino igo ahal izango da aldapa 3 m-tik beherako tarteetan.
 - % 12 beti.
 - % 10 beti.

- 69.- Etxebizitza-erabilera duten eraikinetan, zein da sute-sektorearen gehieneko azalera?
- 1.000 m².
 - 2.000 m².
 - 2.500 m².
 - 4.000 m².
- 70.- Irakaskuntza-erabilera duten eraikinetan, zein da sute-sektorearen gehieneko azalera?
- 1.000 m².
 - 2.000 m².
 - 2.500 m².
 - 4.000 m².
- 71.- Zein kasutan EZ da instalatu behar sute-kea kontrolatzeko sistema bat?
- Aparkaleku irekiak ez diren aparkaleku-erabilerako guneeetan.
 - Ikuskizun-lekuetan, non gehieneko edukiera 700 pertsonakoa den.
 - 1.000 pertsona baino gehiagorentzako merkataritza-erabilerako edo elkargune publikorako establezimenduetan.
 - Atarietan, sute-sektore bera osatzen duten gune eta solairu guztietan 500 pertsona baino gehiagorentzako okupazioa dutenean, edota 500 pertsona baino gehiago ebakutzeko erabiliko dela aurreikusten denean.
- 72.- Su-itzalgailu eramangarriak zenbat metrorik behin jarri behar dira, oro har?
- 10 metrorik behin.
 - 15 metrorik behin.
 - 20 metrorik behin.
 - 25 metrotik behin.
- 73.- Sutea dagoenean suhiltzaileen ibilgailuek maniobra-guneetarako hurbiltzeko ibilbideek gutxieneko zabalera libre bat eduki behar dute. Zein da?
- 5 m.
 - 4,5 m.
 - 3,5 m.
 - 3 m.
- 74.- Zeren definizioa da honako hau?: “Espazio batean dauden material erregai guztiak (eraikinaren edukiak eta eraikuntza-elementuak) erretzean askatzen diren bero-energien batura”
- Suaren dentsitatearena.
 - Suaren bero-potentziarena.
 - Suaren euste-ahalmenarena.
 - Su-kargarena.
- 75.- Zein entseguen bidez zehazten da zoru baten lerrakortasunarekiko erresistentzia?
- Urraduraren entseguaren bidez.
 - Trakzio-mekanikoko entseguaren bidez.
 - Marruskadurarekiko erresistentziaren entseguaren bidez.
 - Penduluaren entseguaren bidez.
- 76.- EKT-OD-ESI 1en arabera, babes-hesiak jarriko dira desnibel, irekigune eta irekiduretan kota-desberdintasun jakin bat baldin badago. Zein da?
- 55 cm-tik gorakoa.
 - 15 cm-tik gorakoa.
 - 100 cm-tik gorakoa.
 - 45 cm-tik gorakoa.
- 77.- Erabilera orokorreko eskailera batek bete behar duen gehieneko eta gutxieneko erlazioa. Zein da erantzun zuzena?
- $54 \text{ cm} \leq 2C + H \leq 70 \text{ cm}$; C kontramailaren altuera delarik eta H mailagainaren luzera.
 - $45 \text{ cm} \leq 2C + H \leq 72 \text{ cm}$; C kontramailaren altuera delarik eta H mailagainaren luzera.
 - $58 \text{ cm} \leq 2C + H \leq 68 \text{ cm}$; C kontramailaren altuera delarik eta H mailagainaren luzera.
 - $60 \text{ cm} \leq 2C + H \leq 63 \text{ cm}$; C kontramailaren altuera delarik eta H mailagainaren luzera.

- 78.- Tximisten kontrako babes-sistemak zehazterakoan, zeren arabera kalkulatu da arrisku onargarria (Na)?
- Eraikuntza mota, eraikinaren edukia, eraikinaren erabilera eta eraikinean egiten diren jarduerak egiten jarraitzeko beharrezko arabera.
 - Inpaktu-dentsitatea, eraikinaren edukia, eraikinaren erabilera eta eraikinean egiten diren jarduerak egiten jarraitzeko beharrezko arabera.
 - Inpaktu-dentsitatea, eraikuntza mota, eraikinaren erabilera eta eraikinean egiten diren jarduerak egiten jarraitzeko beharrezko arabera.
 - Inpaktu-dentsitatea, eraikuntza mota, eraikinaren edukia, eraikinaren erabilera eta eraikinean egiten diren jarduerak egiten jarraitzeko beharrezko arabera.
- 79.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, adierazi zeintzuk diren transmitantzia termikoa neurtzeko unitateak:
- $W / m K$
 - $m K / W$
 - $W / m^2 K$
 - $m^2 K / W$
- 80.- OD-HE1en arabera, adierazi zein klima-zonatan dagoen Gasteizko hiria.
- D1
 - E1
 - C1
 - D2
- 81.- Zeren arabera ezartzen da fatxadei eskatzen zaien gutxienezko iragazgaitasun-maila?
- Zona plubiometrikoaren eta haizearekiko esposizio-mailaren arabera.
 - Zona plubiometrikoaren eta eraikitze moduaren arabera.
 - Zona plubiometrikoaren eta eraikitze-materialen arabera.
 - Zona plubiometrikoaren, eraikitze moduaren eta eraikitze-materialen arabera.
- 82.- Indarrean dagoen araudiaren arabera, zein da teilazko estalkien gutxienezko malda, teila-mota edozein dela ere?
- % 20.
 - % 30.
 - % 35.
 - % 40.
- 83.- Jarraian adierazitako espezieetatik, zein EZIN DA egiturazko zura bezala erabili?
- Tropikala.
 - Makala.
 - Koniferoa.
 - Hostozabala.
- 84.- Jarraian adierazitako tauletatik, zein EZIN DA egiturazko zura bezala erabili?
- Zuntz biguneko taula.
 - Zuntz gogorreko taula.
 - Kontratxapatua.
 - Partikuladuna.
- 85.- Zein obretarako aurkeztu behar da eraikitze- eta eraiste-hondakinen kudeaketari buruzko azken txostena?
- Obra handi guztietarako.
 - Obra handi lizentziadunetarako.
 - Guztietarako, Udaleko obra publikoetarako izan ezik.
 - Guztietarako, salbuespen batekin: lurralde-izaera nabarmena duten obren kasuan.

86.- Obra handietan sortutako eraikuntza eta eraipen-hondakinak kudeatuko direla bermatzeko fidantza bat eratzetik salbuetsita daude ziurtagiri hauetako bat dutenak:

- a) ISO 9001
- b) OSHAS
- c) ISO 14000
- d) EMAS

87.- Hondakinen kudeaketari buruzko azken txostenarekin batera, zer dokumentu aurkeztu behar da?

- a) Kudeatzailearen ziurtagiria, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duena, berrerabilitako hondakinen eta hondakin balorizatuen zinpeko aitortpena, eta kutsatu gabeko lurra jaso dituzten betelantarako lizentzia edo baimena.
- b) Kudeatzailearen ziurtagiria, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duena eta betelantarako garraio-kostuen albaranak.
- c) Kudeatzailearen ziurtagiria, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duena eta hondakindegiko garraio-kostuen albaranak.
- d) Kudeatzailearen ziurtagiria, hondakinak behar bezala kudeatu direla egiaztatzen duena eta berrerabilitako hondakinen eta hondakin balorizatuen zinpeko aitortpena.

88.- Hondakinak jatorrian bertan bereizi behar dira, nahitaez, frakzio hauetatik aurrera:

- a) Hormigoia eta zeramika: 50 Tn; Zura, plastikoak, metalak, beira eta paper-kartoa: 1 Tn.
- b) Hormigoia eta zeramika: 10 Tn; Zura, plastikoak, igeltsuak eta metalak: kasu guztietan eta beira eta paper-kartoa; 0.25 Tn.
- c) Hormigoia eta zeramika: 20 Tn; Zura, plastikoak, igeltsuak eta metalak: kasu guztietan eta beira eta paper-kartoa; 1 Tn.
- d) Hormigoia eta zeramika: 50 Tn; Zura, plastikoak eta metalak: 5 Tn eta beira eta paper-kartoa: 1 Tn.

89.- Obra txikietako hondakinen kudeaketarako udal-ordenantzek nahitaez bereizi beharreko zatik joko dituzte hiru frakzio hauek:

- a) Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.
- b) Bolumen handiko hondakinak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.
- c) Harrizko hondakinak, harrizkoak ez direnak eta arriskutsuak.
- d) Hondakin inerteak, arriskutsuak eta ez-arriskutsuak.

90.- Eduki hauetako bat EZ da beharrezkoa Hondakinak Kudeatzeko Azterketan. Zein da?

- a) Hondakinak prebenitzeko eta bereizteko neurriak.
- b) Obrako hondakinen kuantifikazioa.
- c) Hondakinak obran behar bezala kudeatzeko aurreikusita dauden instalazioen deskripzioa.
- d) Hondakinen kudeaketa behar bezala egiteko pertsona arduradunaren izendapena.

91.- Ondasun higiezinak eta eskubide batzuk balioesteko arauari buruzko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Aginduaren arabera, honako printzipio hauetatik zein EZ da erabiliko balioespenetan?

- a) Errentagarritasuna.
- b) Ordeztea.
- c) Hondar-balioa.
- d) Gardentasuna.

92.- Ondasun higiezinak eta eskubide batzuk balioesteko arauari buruzko martxoaren 27ko ECO/805/2003 Aginduaren arabera, zein kasutan erabil daiteke hondar metodo dinamikoa?

- a) Hiri-lurzoru urbanizagarrietan, jarduketak gutxienez urte bete igarota hasiko badira.
- b) Hiri-lurzoru urbanizagarrietan, jarduketak urte bete baino lehen hasiko badira.
- c) Proiektuan, eraikitzen edo birgaitzen ari diren eraikinetan, epea gehienez ere urte betekoa bada.
- d) Proiektuan edo birgaitzen ari diren eraikinetan, epea gehienez ere urte betekoa bada.

- 93.- Zein da oinarrizko egoera duten landa-lurzoruen balioespenetan erabiliko den kapitalizazio-tasa?
- Estatuaren 30 urterako Obligazioen errentagarritasuna, balioespena dagokion dataren aurreko hiru urteko datuen arabera.
 - Estatuaren 30 urterako Obligazioen errentagarritasuna, balioespena dagokion datan Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera.
 - 2 eta 6 urte arteko Zor Publikoaren errentagarritasuna, balioespena dagokion dataren aurreko hiru urteko datuen arabera.
 - 2 eta 6 urte arteko Zor Publikoaren errentagarritasuna, balioespena dagokion datan Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera.
- 94.- Oinarrizko egoera duten landa-lurzoruen balioespenetan kokapen-faktorea zehazteko hiru zuzenketa-faktore erabiltzen dira. Zeintzuk dira?
- Biztanleguneetara duen irisgarritasuna, jarduera ekonomikoko guneetara duen irisgarritasuna, eta ingurumen- eta paisaia-balio bereziko inguruetan egotea, eta faktore horien produktua ez da inolako baliora mugatua egongo.
 - Biztanleguneetara duen irisgarritasuna, jarduera ekonomikoko guneetara duen irisgarritasuna, eta ingurumen- eta paisaia-balio bereziko inguruetan egotea, eta faktore horien produktua “bi” izango da, gehienez ere.
 - Biztanleguneetara duen irisgarritasuna, nekazal-jarduerako guneetara duen irisgarritasuna, eta balio estrategiko handiko inguruetan egotea, eta faktore horien produktua ez da inolako baliora mugatua egongo.
 - Biztanleguneetara duen irisgarritasuna, jarduera ekonomikoko guneetara duen irisgarritasuna, eta balio estrategiko handiko inguruetan egotea, eta faktore horien produktua “bi” izango da, gehienez ere.
- 95.- Urbanizatzeko eta eraikitze-jarduketan sustapenari kalte-ordainak badagozkio, zein da aplikatuko den Arrisku Gabeko Tasa?
- Estatuaren 30 urterako Obligazioen errentagarritasuna, balioespena dagokion dataren aurreko hiru urteko datuen arabera.
 - Estatuaren 30 urterako Obligazioen errentagarritasuna, balioespena dagokion datan Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera.
 - 2 eta 6 urte arteko Zor Publikoaren errentagarritasuna, balioespena dagokion dataren aurreko hiru urteko datuen arabera.
 - 2 eta 6 urte arteko Zor Publikoaren errentagarritasuna, balioespena dagokion datan Espainiako Bankuak argitaratutako datuen arabera.
- 96.- Urbanizazioa eraberritzeko edo berritzeko jarduketak egiten ari diren lurzoru urbanizatuaren kasuan, zein da jatorrizko egoerako eraikigarritasuna?
- Jarduketa ekarri duen Planaren aurre-aurrekoa.
 - Urbanizazioa berritzeko edo erreformatzeko jarduketa ekarri duen planarena.
 - Dauden eraikinak onartu zituen planarena.
 - Aurreko erantzun guztiak okerrak dira.
- 97.- Legez kontrakotzat jotzen diren obrak egiteak eragindako akzio publikoa noiz arte baliatu ahal izango da?
- Hirigintza-legezketasunerako babes-neurriak hartzeko ezarritako epeak igaro arte.
 - Plangintzak ezarriko du noiz arte.
 - Urte betera arte, administrazioaren ondare-erantzukizuna eskatzeko epearekin bat etorrira.
 - Ez dago eperik.
- 98.- Administrazio-bidea amaitzen duten toki-erakundearen egintzak eta hirigintza-antolamendu eta -exekuzioaren tresnak behin betiko onesteko egintzak, zein jurisdikziotan errekurritu edo aurkaratuko dira?
- Jurisdikzio zibilaren aurrean.
 - Jurisdikzio administratiboaren aurrean.
 - Administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean.
 - Jurisdikzio zibilaren edo administrazioarekiko auzien jurisdikzioaren aurrean, bietako edozeinetan.

- 99.- Hirigintza antolamenduaren xede diren lurzorua, lurpea eta hegalkina eraldatzeko eta erabiltzeko jardueren legalitate-kontrolerako tresnen artean EZ dago honako hauetako bat. Zein da?
- Hirigintza-ikuskapena.
 - Baimena, lizentzia, aurreiazko komunikazioa eta erantzukizunpeko adierazpena.
 - Egikaritze-agindua.
 - Higiezin bati eragiten dion sektoreko txostena edo gai espezifikoak.
- 100.- Hirigintzako lizentzia behar duten ekintzen artean EZ dago honako hauetako bat. Zein da?
- Lur-mugimenduak eta lurra erauzteko eta berdintzeko lanak.
 - Behin-behinekoak izango diren obrak.
 - Hondarrak eta hartxintxarrak ateratzea eta harrobiak ustiatzea.
 - Plangintza egikaritzeko hirigintza-obrak.
- 101.- Hirigintzako lizentzia higiezinaren jabeari baino ez zaio emango?
- Ez, inoiz ez.
 - Bai, beti.
 - Ondasun publikoen kasuan bai.
 - Zuzkidurako ondasun publikoen kasuan bai.
- 102.- Badira eraikuntza-lanak hirigintzako lizentzia edo baimena behar ez dutenak. Zeintzuk dira?
- Ez dago halakorik.
 - Lurralde-izaera nabarmena duen administrazio batek sustatutakoak.
 - Administrazio batek sustatutakoak.
 - Interes publiko eta soziala dutenak.
- 103.- Nork egingo du hirigintza-ikuskapena?
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak.
 - Foru Aldundiak.
 - Udalak.
 - Aurreko guztiek.
- 104.- Hirigintza-lizentzia iraungitzeagatik, ba al dago kalte-ordainik?
- Ez, obrek lizentzian ezarritako epeak errespetatzen ez badituzte eta, ondorioz, sustatzaileari egotzi dakioken zioen bategatik hasi gabe, edo amaitu gabe, edo etenda baldin badaude.
 - Bai, baina bakarrik obrak egiten ari badira.
 - Bai, baina bakarrik ondasun publikoei eragiten badiete.
 - Ez, inoiz ez.
- 105.- Ezkutuko obrak legeztatze eskaera ebazteko epea, zein da?
- Bi hilabete, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.
 - Hiru hilabete, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.
 - Sei hilabete, eskaera aurkezten den egunetik zenbatzen hasita.
 - 6 hilabete salaketa egiten den egunetik zenbatzen hasita.
- 106.- Obra bat ezin dela legeztatu adierazten bada, zer egin daiteke?
- Obrak eraitsi, interesdunak ordainduta, erabilerak behin betiko eten, eta bide gabe eraikitakoa berreraiki kasu guztietan.
 - Obrak eraitsi, interesdunak ordainduta, erabilerak behin betiko eten, eta bide gabe eraikitakoa berreraiki higiezin babestutakoa bada.
 - Hirigintzako lizentzia berri bat eman legalitate-akatsa konpontzeko.
 - Jabetza Erregistroari jakinarazi ezin dela legeztatu.

- 107.- Lurzoru ez urbanizagarrian hirigintza-antolamendua lehengoratzeko espedientea hasteko, zein da gehieneko epea?
- Kanpo-itxurak obrak egin direla adierazten duenetik, lau urte igaro ondoren, jabari publikoan eraginik badu.
 - Kanpo-itxurak obrak egin direla adierazten duenetik, lau urte igaro ondoren, babestutako ondasunetan eraginik badu.
 - Kanpo-itxurak obrak egin direla adierazten duenetik, lau urte igaro ondoren, edozein kasutan.
 - Bat ere ez
- 108.- Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzen arabera (2009ko otsailaren 12ko Agindua), zein da garaje-plaza bakoitzaren azalera erabilgarria konputatzeko irizpidea?
- Garaje-plaza bakoitza mugatzen duen perimetro barruko azalerari barruko errodadura-erri eta sarbide-arrapaletatik dagokion zati proportzionala batuko zaio, gehienez 30 m² zenbatu daitezkeela kontuan hartuta.
 - Garaje-plaza bakoitza mugatzen duen perimetro barruko azalerari barruko errodadura-erri eta sarbide-arrapaletatik dagokion zati proportzionala batuko zaio, gehienez 35 m² zenbatu daitezkeela kontuan hartuta.
 - Garaje-plaza bakoitza mugatzen duen perimetro barruko azalerari partzelaren aurrealdearen zati proportzionala batuko zaio, barruko errodadura-erri eta sarbide-arrapalak kanpoan utzita, gehienez 30 m² zenbatu daitezkeela kontuan hartuta.
 - Garaje-plaza bakoitza mugatzen duen perimetro barruko azalerari partzelaren aurrealdearen zati proportzionala batuko zaio, barruko errodadura-erri eta sarbide-arrapalak kanpoan utzita, gehienez 35 m² zenbatu daitezkeela kontuan hartuta.
- 109.- Babes ofizialeko etxebizitzaren diseinurako ordenantzen arabera (2009ko otsailaren 12ko Agindua), zein da zoruaren eta sabaiaren arteko gutxieneko garaiera librea etxebizitzaren barnean?
- Etxebizitzaren barnean, zoruaren eta sabaiaren arteko gutxieneko garaiera librea 2,50 m izango da, eta sarrera, pasillo eta bainugeletan 2,20 m izan daiteke.
 - Etxebizitzaren barnean, zoruaren eta sabaiaren arteko gutxieneko garaiera librea 2,40 m izango da, eta sarrera, pasillo eta bainugeletan 2,20 m izan daiteke.
 - Etxebizitzaren barnean, zoruaren eta sabaiaren arteko gutxieneko garaiera librea 2,50 m izango da, eta 2,20 m izan daiteke bakarrik bainugeletan.
 - Etxebizitzaren barnean, zoruaren eta sabaiaren arteko gutxieneko garaiera librea 2,40 m izango da, eta 2,20 m izan daiteke bakarrik bainugeletan.
- 110.- Zeintzuk dira EIT egin beharko duten eraikinak, hartarako epea iritzita?
- Guztiak.
 - Bizitegirako eraikin kolektiboak bakarrik.
 - Bizitegirako eraikin kolektibo eta familia bakarreko guztiak.
 - Gune edo bide publiko batera ematen duten bizitegirako familia bakarreko guztiak.
- 111.- Ezarritako epean EIT aurkezten ez badu hartara behartuta dagoenak, honako hau izango da Udalaren betebeharra:
- Aldez aurretik errekerimendua eginda, 2 hileko epean nahitaez betearazteko agindua emango du hura aurkezteko.
 - Pertsonentzako arriskua badago bakarrik eta aldez aurretik errekerimendua eginda, 2 hileko epean nahitaez betearazteko agindua emango du hura aurkezteko.
 - Patologia larriren bat badago bakarrik eta aldez aurretik errekerimendua eginda, 2 hileko epean nahitaez betearazteko agindua emango du hura aurkezteko.
 - Ez dauka inolako betebeharririk.
- 112.- Obrak egiteko gehieneko epea 12 hilabetekoa bada, kontserbatzeko zein motatako esku-hartzea da?
- Oso premiazkoa, 2. maila.
 - Premiazkoa, 3. maila.
 - Epe ertainean beharrezkoa, 4. maila.
 - Mantentzea, 5. maila.
- 113.- Lurzoruari eta Hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak 203. artikuluan ezarritakoaren bat etorrira, zein esku-hartze mailek ekarriko dute betearazteko agindua irekitzea?
2. eta 3. mailek.
 - 2., 3. eta 4. mailek.
 - 2., 3., 4. eta 5. mailek.
 - Horietako batek ere ez.

114.- Zein da EIT errepikatzeke epea?

- a) 5 urte, kasu guztietan.
- b) 10 urte, kasu guztietan.
- c) 10 urte, salbu eta ezarritako derrigorrezko adina bete ez badute eraikinek.
- d) Betearazteko aginduan Udalak eskatzen duena.

115.- Kontserbazio-, irisgarritasun- edo energia-gaietan edozein laguntza jasotzeko, noiz eduki behar da, nahitaez, EIT Udalean aurkeztuta?

- a) Laguntza-eskabidea aurkeztu aurretik.
- b) Laguntza-espedita ebatzi aurretik.
- c) Laguntza-eskabidea aurkeztu eta gero, baina hura ebatzi aurretik.
- d) Laguntza-espedita ebatzi eta gero, baina laguntza eman aurretik.

116.- Kontserbazio-eginbearra betetzeko agindutako obren kostuaren eta jabetza-eskubidearen betebeharraren mugaren arteko aldea nork ordaindu behar du?

- a) Obrak agintzen dituen administrazioak.
- b) Jabeekideen erkidegoak.
- c) Udalak, kasu guztietan.
- d) Eusko Jaurilaritzak edo Foru-aldundiak, emandako nahitaezko diru-laguntzen arabera.

117.- Noiz emango da legezko aurri-egoera edo aurri ekonomikoa?

- a) Jabeek eskatzen dutenean.
- b) Kontserbazio-betebeharraren betekizunak bermatzeko beharrezkoak diren obren kostuak higiezinaren balioa galdutako berrezartze-kostuaren %50a gainditzen duenean.
- c) Kontserbazio-betebeharraren betekizunak bermatzeko beharrezkoak diren obren kostuak higiezinaren merkatuko balioaren %50a gainditzen duenean.
- d) Kontserbazio-betebeharraren betekizunak bermatzeko beharrezkoak diren obren kostuak jabetza-betebeharrean ezarritako legezko muga gainditzen duenean.

118.- Kalifikatuta edo inbentariatuta dagoen bizitegirako higiezin baten aurri-deklaraziorako, kontserbazio-betebeharraren zer muga aplikatuko zaio?

- a) Etxebizitza bati dagokiona, Etxebizitza buruzko 3/2015 Legearen arabera.
- b) Lurzoruari eta hirigintzari buruzko 2/2006 Legeak adierazitako ohikoa.
- c) Lurzoruaren eta Hiri Errehabilitazioaren Legearen testu bategina onartzen duen urriaren 30eko 7/2015 Legegintzako Errege Dekretuak adierazitako orokorra.
- d) Euskal Kultur Ondareari buruzko uztailaren 3ko 7/1990 Legean adierazitako espezifikoa.

119.- Noiz esango da higiezin bat erortzeko zorian dagoela?

- a) Egitura egonkortzeko obren kostua higiezinaren balioaren % 50etik gorakoa bada.
- b) Egitura egonkortzeko obren kostua higiezinaren berrezartze-balioaren % 50etik gorakoa bada.
- c) Arriskuan jartzen badu segurtasun publikoa edo pertsona eta ondasunen segurtasuna.
- d) Eraikina kolapsatu eta ezin bada berreskuratu.

120.- Egikaritze-agindu bat arrazoirik gabe betetzen ez badu hartara behartuta dagoenak, administrazioak zer neurri har dezake?

- a) Egikaritze subsidiarioa, hertsatze-isunak, desjabetze-espedita ireki, pertsonak derrigortu.
- b) Exekuzio subsidiarioa, zehapen-espedita ireki, desjabetze-espedita ireki, pertsonak derrigortu.
- c) Egikaritze subsidiarioa, hertsatze-isunak, agindua bete ahal izateko diru-laguntza bat eman, pertsonak derrigortu.
- d) Egikaritze subsidiarioa, hertsatze-isunak, desjabetze-espedita ireki, birgaitze-programa bat egin.